



**2023KO OTSAILAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren seian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko urtarrilaren 26an egindako bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) 2023ko 2 zenbakidun zerrendan agertzen den LIUZ SLren izenean dagoen fakturaren kontzeptua gaizki dagoela adierazi du. "Arieriarako 25 aukiren hornidura" beharrean, "Kultur etxerako 25 aukiren hornidura" jarri beharko luke. Hau zuzentzea eta partida ere ondo jarrita ote dagoen egiaztatzea adostu da.

Fakturak aztertu ondoren, 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 81 zenbakidun fakturen zerrenda, HOGEITA ZAZPI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimokoa (27.497,50 €) eta 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zenbakidun fakturen zerrenda, HOGEITA BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIRU euro ETA HOGEITA BOST zentimokoa (29.393,25 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, ELEKTRIZITATE HORNIDURA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, elektrizitate hornikuntza kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez elektrizitate hornikuntza kontratatze-ko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena ematea, erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.
- 3.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Kantaka Abesbatza.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da, 3.000 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.05.334.00 2023 partidatik egingo da.

Jundajo Txaranga Taldea.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da, 3.000 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.02.334.00 2023 partidatik egingo da.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Txindoki Atletismo taldeari 800 €-ko dirulaguntza ematea onartu du "Josetxo Imazen Oroimenezko XXII. Lasterketa" antolatzeagatik.

Ordainketa 1 481.01.341.00 2023 partidatik egingo da.

VI.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueren dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei erosketa bonoengatik.-



Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beren saltokietan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bederatzigarren ordainketa egitea:

Merkataria	Zenbatekoa
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	150 €
GUZTIRA	150 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

Merkatariei Gabonetako erakusleihen lehiaketako sari-bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2022ko Gabonetan burututako erakusleihen lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariei beren saltokietan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera bigarren ordainketa egitea:

Merkataria	Zenbatekoa
AMAIA SORAZU ZULAIKA (EKILORE)	30 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	15 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	95 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	100 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	65 €
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	25 €
GUZTIRA	330 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.01.430.00 partidatik egingo da.

2023ko Merkataritza, Zerbitzuak eta Ostalaritza sustatzeko dirulaguntzen deialdia

Lazkaoko merkataritzaren, zerbitzuen eta ostalaritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2016tik ematen dituen dirulaguntzak direla eta, Ekonomia Jarduera Batzordeak dirulaguntza hauen 2023 urterako deialdia egiteko proposamena egin du, oinarriak bere horretan mantenduz.

Proposamenari erantsitako deialdiaren ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Xedea: 2023 urtean Lazkaon merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduera berrien instalazio gastuak hala nola lehendik martxan dauden jardueren egokitzapen eta modernizatzearen gastuak zati batean ordaintzen laguntzea.



- Gastua: deialdi honetan emango diren dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 6.000 €-koa izango da eta aurrekontuaren 1 471.03.430.00 partidatik ordainduko dira.
- Epea: 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, merkataritzaren, zerbitzuen eta ostalaritzaren sustapenerako 2023ko dirulaguntzen deialdi hau onartzea erabaki du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak azaldu du informazio-panel digitala jartzeko aurrekontuak eskatzen ari direla. Panel hau jartzeko tokia ere finkatzeke dago, aukera bezala Alboka tabernaren ondoran jartzea aurreikusten da.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

